

OINARRIAK, SAKANAKO MANKOMUNITATEKO HONDAKIN ZERBITZUKO LANGILE LANPOSTUAREN BEHARRAK BETETZEKO LAN-POLTSA OSATZEKO (PEOI GIDARIA)

LANPOSTUA	Peoi gidaria, eskorga-gidari eta pala-gidari gisa lan egiteko, eta antzeko lanak egiteko ere.
NON	Sakanako Mankomunitatearen hondakin-zerbitzua
KONTRATUAREN IRAUPENA	Zerbitzuaren beharren arabera
LANALDIA	Osoa
AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:	<ol style="list-style-type: none"> 1. NANaren fotokopia edo identifikazio agiri baliokidea. 2. Lehiaketa faserako alegatutako merezimenduen agiriak. 3. Deialdian eskatutako tituluaren fotokopia, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena. 4. Enplegu bulego batean eskatzaile (edo hobekuntza) gisa inskribaturik dagoelako ziurtagiria edo hura egiaztatzen duen txartelaren fotokopia. 5. C1 motako gidabaimenaren fotokopia. 6. Eskatutako euskara-maila izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.
ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA	<u>2021eko otsailaren 8ra arte (14:00)</u>
AURKEZTEKO TOKIA	Sakanako Mankomunitatea

1.-. OINARRIA.- ARAU OROKORRAK.

1.1. Deialdi honen xedea da lan-poltsa bat sortzea aldi baterako, oposizio-lehiaketa bidez, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuan peoi-gidari aritzeko, zerbitzuaren beharrak betetzeko. Hautapen-prozesu hau edo probaren bat gainditu duten izangaiek osatuko dute lan-poltsa, puntuazio-ordenari zorrotz jarraituz. Poltsa 5 urtez egongo da indarrean, eta hondakin-zerbitzuko lanpostu hutsak betetzeko erabiliko da. Poltsa honek lehentasuna izango du aurretik egindakoen gainetik. Lan-poltsa egiteko Langileen Estatutuaren Testu Bateginak pertsona ez-gaituei buruz dioena hartuko da kontuan.

1.2. Lanpostua lan araubidekoa izango da eta bere lansaria plantilla organikoko eta Sakanako Mankomunitateko lan-kontratudunei dagokiona izango da. Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean kidetuta eta hartan alta hartuko dute.

1.3. Kontratuaren iraupena zerbitzuaren beharren arabera izango da. Bi hilabeteko probaldia ezartzen da. Lan-ordutegia deialdia egin duen administrazioak ezarritakoa izango da, eta administrazioak aldatu ahal izango du, zerbitzuaren beharren arabera egokituz une oro.

2. OINARRIA.- BETE BEHARREKO EGINKIZUNAK.

Eginkizunak bere kategoriari dagozkionak izango dira, hau da:

- Sakanako Mankomunitatearen lurraldean hiri-hondakin solidoak biltzea eta tratatzea.
- eskorgarekin zaborte-giko instalazioetan lan egitea, papera, kartoia eta filma paketatzea.
- Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Ataleko buruak eta/edo hondakin teknikariak berariaz agintzen dizkieten antzeko eta/edo beste batzuk, Sakanako Mankomunitatearen instalazio (hondakindegia barne), bilketa zutoin eta zerbitzuarekin zerikusia duten gainerako instalazioen mantentze-lanak, konponketa, etab.

3. OINARRIA.- IZANGAIEN BETEBEHARRAK.

3.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa edo, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko tratatuek ukitutako estatuetakoa herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez bereizita ez badaude. Era berean, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, legez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

- b) Adinez nagusia izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adinik ez izatea.
- c) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, DBHko graduatuaren titulua, Eskola graduatuen titulua, erdi mailako Lanbide Heziketakoa edo horien baliokide bat izatea, edo izateko moduan egotea (titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina). Atzerrian lorturiko tituluak izanez gero, aipatu epea betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.
- d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.
- e) Funtzio publikoan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izana, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik berezia ere.
- f) Enplegu Bulegoan lan-eskatzaille gisa inskribaturik egotea, edo lan-hobekuntzan.
- g) Euskaraz jakitea B1 (ahozkoa).
- h) C1 gidabaimena.

3.2. 4. oinarrian ezarritakoa kenduta, aipatuko betebeharrak deialdiko 10. oinarrian ezartzen diren epean eta moduan frogatu beharko ditu lanpostua lortzen duen izangaiak. Hori guztia bete beharko da eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako, hautapen prozesu osoan izendapen eguna arte bete ere.

3.3. Era berean, parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izanik parte hartzen dutenek horren berri eman beharko dute eskabidean; gainera, hura frogatzen duen dokumentazioa, organo eskudunak emana, erantsi beharko dute. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituzten denbora eta baliabide egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute eta, gainera, aparteko orri batean, zer egokitzapen eskatzen duten.

- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangai horiek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziara eramango dira, probak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar dituzten egokitzapenak zehazteko.

4. OINARRIA.- ESKABIDEAK.

4.1. Nafarroako Administrazio Publikoen Sarbide Arautegiaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera (ekainaren 5eko 113/1985 Foru Legearen bidez onartua), aldi baterako langileak hautatzeko prozesua azkarra izan behar da kontratazioa erraztearren.

Lanpostu hori betetzea presakotzat ematen dugunez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Altsasuko enplegu bulegoari enplegu-eskaintza bat egiteko eskatuko zaio deialdiko 3. oinarria betetzen dutenei zuzenduta. Nolanahi ere, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskubidea izango dute, horretarako baldintzak betez gero, eta nahiz eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Altsasuko Enplegu Bulegotik deituak izan ez, instantziarekin batera enplegu-eskatzaile gisa eskabidea egina dutela kreditatzen duen agiria aurkezten duten izangaiek, betiere 3. oinarrian ezarritakoari jarraikiz.

Izangaiek dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute Sakanako Mankomunitateko bulegoetan (Uriz kalea 32, Lakuntza), deialdi honen I. eranskinean ageri den ereduaren arabera, **2021eko otsailaren 8ko 14:00ak baino lehen**, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39-2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz; kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu izana frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute ezarritako epea baino lehen posta elektronikoko helbide honetan: idezkarria@sakana-mank.eus. Mankomunitatearen egoitza elektronikorako sarbidea honako hau da: <https://sedeelectronica.sakana-mank.com/es/index.aspx>

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian egingen da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aurretik, eta horren berri emanen zaio entitate honi gorago adierazitako helbidera mezu elektronikoko bat igorritik.

4.2. Eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) NANaren fotokopia edo identifikazio agiri baliokidea.
- b) Lehiaketa faserako alegatutako merezimenduen agiriak.
- c) Deialdian eskatutako tituluaren fotokopia, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.
- d) Enplegu bulego batean eskatzaile gisa inskribaturik dagoelako ziurtagiria edo hura egiaztatzen duen txartelaren fotokopia (edo lan-hobekuntzarena).
- e) C1 motako gidabaimenaren fotokopia.
- f) Eskatutako euskara-maila izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.

Euskara maila honela egiaztatuko da: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailari dagozkion tituluaren kopia edo ofizialki onartutako organo eskudun batek emandako gaitasun-agiria aurkeztuta edo eskatutako ezagutza neurtzeko berriazko proba gaudituta, betiere azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren Hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera.

4.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

5. OINARRIA.- IZANGAIAK ONARTZEA, ERREKLAMAZIOAK ETA BEHIN BETIKO ZERRENDAK.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Sakanako Mankomunitateko iragarki-taulan eta <https://www.sakana-mank.eus/> web-orrian.

5.2. Iragarkia Sakanako Mankomunitatearen iragarki-taulan eta weborrian argitaratzen denetik aurrera bi lan-eguneko epean, izangaiek erreklamazioak aurkeztu edo instantzian egindako akatsak zuzendu ahal izango dituzte.

5.3. Aurreko oinarrian aipatu epea bukatu eta aurkezten diren alegazioak ebatzi ondoren, Mankomunitateko lehendakariak ebazpena emango du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko; horiek Sakanako Mankomunitatearen iragarki-taulan eta web-orrian jarriko dira jendaurrean, hautapen proba egiteko eguna eta tokia adierazita. Halaber, kasua bada, euskara probak egiteko eguna eta tokia iragarriko dira.

5.4. Inor baztertzen ez bada, zuzenean argitaratuko da behin betiko zerrenda, eta zerrenda horretan bertan jarriko dira hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia, eta, kasua bada, euskara probak egitekoak ere bai.

5.5. Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak eta probak egiteko data eta tokia Mankomunitateko iragarki-taulan eta haren webgunean (<http://sakana-mank.eus/>) argitaratuko dira (interesdunen erantzukizuna izango da haiek kontsultatzea).

6.-. OINARRIA. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

6.1. Epaimahai kalifikatzaileak honako kide hauek izango ditu:

- Mahaiburua: David Oroz Alonso, Sakanako Mankomunitateko lehendakaria.
Ordezkoa: Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza, Sakanako Mankomunitateko lehendakariordea.
- 1. bokala: Olatz Garde Mazkieran, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko teknikaria.
Ordezkoa: Alberto Urkia Mendinueta, plantako arduraduna.
- 2. bokala: Sakanako Mankomunitateko kudeatzailea
Ordezkoa: Iker Manterola Matxain, Sakanako Garapen Agentziako kudeatzailea.
- 3. bokala: Imanol Reparaz Lizarraga, Hondakin Zerbitzuko langileen ordezkari sindikala.
Ordezkoa: Ana Jesus Carrillo Simon, Hondakin Zerbitzuko langileen ordezkari sindikala.
- Bokal-kontu-hartzailea: Nerea Malkorra Araolaza, Sakanako Mankomunitateko kontu-hartzailea.
Ordezkoa: Maria Barkos Berruezo, Lakuntzako udal-idazkaria.
- Bokal-idazkaria: Miren Ortiz Olabe, Sakanako Mankomunitateko idazkaria.

Ordezkoa: M^a Carmen Garmendia Aguirre, Urdiaingo eta Ziardiko udaletako idazkaria.

6.2. Epaimahaia hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da. Horretarako eta jardunak balio izateko, gutxienez kideen gehiengo osoa bertaratu beharko da.

6.3. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

6.4. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira eta haietan soilik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6.5. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta epaimahaiburuari jakinarazi, baldin Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak gertatzen badira. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, inguruabar horietako bat gertatzen denean. Epaimahaia aldatzen bada, mahaikideek parte ez hartzeko eta haiek errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean agertuko da hori, izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera.

7. OINARRIA.- OPOSIZIO-LEHIAKETA NOLA EGIN.

7.1. Oposizio-lehiaketa bi urratsetan egingo da, lehiaketaldia lehendabizi eta oposizioaldia gero, arau hauetan adierazten den gisara.

7.2. Oposizio-lehiaketa izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda aditzera ematearekin batera emango da aditzera noiz, non eta zein ordutan hasiko den.

Gero, epaimahaiak behar den garaian aditzera emango ditu gainerako probak egiteko iragarkiak, arauzko moduan.

7.3. Lehiaketa-oposizioaldian gehienez 100 puntu lortzen ahal dira, honela banatuak: 30 puntu lehiaketan eta 70 puntu oposizioaldian.

Oposizioa hasi aurretik euskara proba egingo da. Bakarrik deialdi honetako 3. oinarrian eskatutako baldintza egiaztatu ez duten izangaiek egingo dute, baldin eta eskabide baten bidez proba egiteko interesa adierazi badute. Proba Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuko langileek egingo dute. Proba amaitutakoan, lehiaketa-oposizioaldiko probak egingo dira.

8. OINARRIA.- LEHIAKETALDIA.

8.1. Lehiaketaldia ez da baztergarria izango eta gehienez ere 30 puntu eskuratzen ahalko dira.

8.2. Oinarri hauetan ezarritakoarekin bat etorrira, izangaiek alegatutako merezimenduak, behar bezala egiaztatuak, ondoko baremoaren arabera baloratuko ditu epaimahaiak:

1.- Meritu akademikoak.

- a) Lanbide Heziketa: 2 puntu.
- b) Unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako titulua. 0,5 puntu.

Atal honetako gehieneko puntuazioa 10 puntu dira.

2.-Meritu profesionalak.

- a) Sakanako Mankomunitateko Hondakin Atalean peoi, peoi-gidari edo eskorga nahiz pala gidari gisa lanbidean egindako lana: 4 puntu urte bakoitzeko. Beste erakunde publiko batean emandako zerbitzu berberak: 3 puntu urte bakoitzeko.
- b) Enpresa pribatuetan hondakin zerbitzuetan (gidaria, peoi-gidaria edo peoia) palarekin edo eskorgarekin egindako lanak: 2 puntu urte bakoitzeko.
- c) C2 gida-baimena edukitzeagatik: 2 puntu.
- d) Eskorga-gidari karneta edukitzeagatik: 2 puntu.

Atal honetan 20 puntu lortzen ahal dira, gehienez; urte bat baino gutxiagoko tartean proportzionalki baloratuko dira.

8.3. Lehiaketa bukatutakoan, aditzera emango da Sakanako Mankomunitatearen iragarki-oholean izangai bakoitzak lortutako puntuazioa.

9. OINARRIA. - OPOSIZIOALDIA.

9.1. Oposizioaldiak ariketa hauek izango ditu, eta gehienez ere 70 puntu lortzen ahalko dira bertan:

-Lehen ariketa: Matematika eta/edo kultura orokorra, test motakoa. Atal honetako gehieneko puntuazioa 30 puntu dira. Izangaiek 15 puntu atera beharko dituzte, gutxienez, bigarren ariketa egin ahal izateko.

-Bigarren ariketa: Kasu teoriko-praktiko bati erantzun beharko zaio, idatziz, gai hauetaz: lanpostuaren eginkizunak, Sakanako Mankomunitatearen estatutuak eta Hiri Hondakin Solidoen organo bereziaren funtzionamendua. Ariketari 40 puntu emanen zaizkio, gehienez ere, eta 20 puntu atera beharko dira, gutxienez, ariketa gainditzeko.

9.2. Oposizioaldiko azken ariketa bukatutakoan, Sakanako Mankomunitatearen iragarki-oholean probak gainditu dituztenen zerrenda jarriko da ikusgai, bakoitzaren puntuazioa adierazita.

10. OINARRIA.- KONTRATAZIOA.

10.1. Hautaketa prozesua amaitutakoan, epaimahaiak lan-poltsa egingo du, eta lehendakariari igorriko dio. Proposamena loteslea izango da administrazio eskatzailearentzat.

10.2. Emaizak Sakanako Mankomunitatearen iragarki-taulan eta web-orrian ikusi ahal izango dira.

10.3. Puntuazio altuena lortu duen izangaia Hondakin Zerbitzuak haren beharra duen unean kontratatuko da. Hautatzen den izangaiak lanpostuan sartu beharko du 7 eguneko epean gehienez ere, Administrazio kontratugilearen proposamena onartzen duen egunetik hasita. Izangaia epe horretan lanean hasiko ez balitz, nahiko justifikatutako kasuetan izan ezik edota plaza berriz hutsik geratuz gero, eta 1. oinarrian ezarritakoari jarraikiz, organo eskudunek hautespen-prozesuan lortutako puntuazio onenaren hurrenkerari jarraikiz izangaiak kontratatu ahalko ditu, eskainitako kontratazioarekin ados daudela adierazten dutenak

10.4. Hautatutako pertsonak 4.2 oinarrian ezarritako dokumentazioaren jatorrizko agiriak eta fotokopiak aurkeztu beharko ditu.

10.5. Deia egiteko, kontuan hartuko da, halaber, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 4. atalak ezartzen duena, zeinean arautzen baitira desgaitasunen bat daukaten pertsonak Nafarroako Administrazio Publikoko lanpostuetan sartzeko prozedura. Horretarako, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua daukaten izangaiek desgaitasuna egiaztatu beharko dute, organo eskudunak horretarako egindako dokumentuaren kopiaren bidez.

11.1. Poltsako lehentasuna oinarri honetan ezarritako irizpideen arabera ezarriko da.

11.2. Lan-poltsa osatzen duten izangaiak probetan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira, handienetik txikienera. Lehenik eta behin, lehenengo postuan dagoen pertsonarekin harremanetan jarriko gara, eta hura kontratatzea ezinezkoa bada, bigarren postuan dagoen hautagaiarekin saiatuko gara, beheranzko ordenan.

11.3. artikulua. Deiak egiteko arau orokorrak.

- a) Ahal den azkarren aurkitzea errazteko, izangaiek gutxienez ere harremanetarako telefono zenbaki bat eman beharko dute eta posta elektronikoko helbide bat.
- b) Izangaiei deitzeko orduan, aurretik ezarritako lehentasun-irizpideak hartuko dira kontuan.
- c) Kontratua telefonoz eskaintzen zaion izangaiari hiru dei, bederen, egingen zaizkio emandako komunikazio-bideen bitartez, bi eguneko epean.
- d) Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratazio-eskaintza bat egiten bazaio eta ez badio erantzuten, ezetsizat joko da, eta aurrerago xedatutakoa aplikatuko zaio.

- e) Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada edo eskaintzari erantzuten ez badio, zerrendan hurrengo denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte.
- f) Lokalizatu ezin izan diren interesdunek zerrendan duten postuari eutsiko diote.
- g) Hasiera batean hamabost egunekoak edo laburragoak diren kontratazioak, behin baimendu ondoren, harekin harremanetan jarrita lanean berehala hastea onartzen duen lehenengo izangaiari eskainiko zaio, artikuluko honen c. idatz-zatian ezarritakoa bete behar izan gabe.

11.4. artikulua. Kontratatzeko eskaintzari uko egitea.

- a) Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendatik at geratuko da, salbu eta ondoko egoera batean dagoela frogatzen badu:
 - 1. Indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea. Kasu horretan, ezinbestekoa izango da izendapena edo kontratua Mankomunitatera bidaltzea.
 - 2. Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo umea izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta behar bezala frogatu arte uko egitea justifikatu zuen egoera bukatu dela. Egoeraren froga bidali beharko zaio Mankomunitateari.
 - 3. Hiru urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoa lehenago desagertzen bada.
 - 4. Zaindu behar badu bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoa lehenago desagertzen bada.
 - 5. Izangaia ezkondu berria bada edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, balio bereko egoeran sartu berria, hori gertatu ondoko edo gertatu aurreko hamabost egun naturaletan uko eginez gero lanpostuari.
 - 6. Desgaitasunen bat behar bezala onartua izatea eta desgaitasunaren ezaugarriak bateraezinak izatea eskaintzen zaion lanpostuaren ezaugarri bereziekin.
- b) Aurreko idatz-zatian jasotako kasuetan, 6 zenbakikoetan izan ezik, izangaiek zerbitzu emateko moduan daudela jakinarazi beharko dute. Jakinarazpen hori egin bitarte, izangaiak ez dira deitzeko moduan izanen, eta ez zaie inolako lanposturik eskainiko sartuta dauden zerrendetatik. a), c) eta d) letretako kasuetan, arrazoi eragile bera bi aldiz baino ezin izanen da erabili ukoa justifikatzeko arrazoi gisa.
- c) Aurreko ataletan adierazitako egoeretako batean dauden izangaiek hamabost eguneko epea izango dute, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik,

agiri bidez eta behar bezala justifikatzeko. Hala eginez gero, lanpostuari uko egin ziotenean zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

11.5. artikulua. Zerrendetatik ateratzea. Zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiak:

- a. Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazoiengatik.
- b. Probaldia gainditzen ez badute.
- c. Sinatutako kontratuari uko egitea.
- d. Urtebeteko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoaren bidez kontratatzeke deiak behin eta berriz eginda ere.
- e. Administrazio publiko batean edo haren menpeko erakunde autonomo batean funtzionario gisa edo lan kontratatu gisa sartzea.
- f. Lanpostua uztea.
- g. Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langileak lanpostuan aritzeko duen gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar.

8. OINARRIA. ERREKURTSOAK.

Deialdiaren, oinarrien eta bere aplikazio egintzen aurka, honako errekurtsu hauek aurkezten ahal dira, aukeran:

- a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, erabaki hau edo errekurritzen den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean, organo egileari errekurritzeko asmoaren berri emanik; edo bestela
- b) Gora jotzeko errekurtsua, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, erabaki hau argitaratu edo errekurritzen den egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epearen barnean.
- c) Berraztertzeke errekurtsua, erabaki hau edo aplikazio-egintza egin duen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.
- d) Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Lakuntzan, 2021eko urtarrilaren 22an

Lehendakaria
DAVID OROZ ALONSO

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

Eskatzailearen datuak:

IZEN-ABIZENAK	
NAN ZK.:	
JAIOTZE-DATA	
HELBIDEA (kalea, zenbakia, solairua, etab.).	
UDALERRIA	
POSTA KODEA:	
TELEFONOA:	
E-MAILA (nahitaezkoa)	

Zure aurrean agertzen naiz eta azaltzen dut:

1. Onartua izatea eskatzen dudala Sakanako Mankomunitateko hondakin zerbitzuan peoi-gidari izateko lehiaketa oposizio bidezko lanpostuaren deialdian. Lanpostua aldi baterako izango da.
2. Horretarako, honako hau adierazten dut:
 - Deialdiaren 3. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean betetzen ditudala eta hura egiaztatzeko dokumentazio guztia atxiki dudala.
 - Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz fisikorik.
 - Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

- Ez naizela diziplinako espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik kanpo utzia izan, eta, era berean, ez nautela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi.

- Badudala deialdi honetan adierazten den gutxieneko titulazioa.

-(e)ko Enplegu Bulegoan lan-eskatzaille gisa inskribaturik nagoela.

3. Deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako (4.2 oinarria) honako dokumentazio hau eransten dudala:

	BAI	EZ
NANaren FOTOKOPIA		
TITULAZIOA (zehaztu zein) -..... -..... -..... -..... -..... -..... -..... -.....		
HALA BADAGOKIO, DESGAITASUNAREN AGIRI FROGAGARRIA (% 33)		
ESKATUTAKO EUSKARA MAILA BADUELA EGIAZTATZEN DUEN AGIRIA -Maila:.....		
PROBAK EGITEKO DENBORAK ETA/EDO BALIABIDEAK MOLDATZEKO ESKAERA (baiezkoa bada, aparteko orri batean eskatu).		

4. Ez dut eskatutako euskara maila badudala ziurtatzen duen agiria aurkeztu, eta, beraz, adierazten dut hizkuntza honen jakite-maila neurtzeko proba egin nahi dudala:

EUSKARA

5. Baimena ematen dut prozedura hau tramitatzeko jarduketan ondoriozko jakinarazpenak lehen adierazitako helbide elektronikora bidaltzeko (X batez markatu; nahitaezkoa)

ADOS NAGO

ESKATZEN DUT eskabide honetan adierazitako prozesuan onartua izateko, eta AITORTZEN DUT, erantzukizuna nirea izanik, bertan agertzen diren datu guztiak egiazkoak direla.

.....(n), 2021eko.....(a)ren.....(a)n.

(Sinadura)

DATUEN BABESA: Sakanako Mankomunitatea da arduradun deialdia kudeatu eta kontratazioa egiteko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduaz, betebeharrak publikoak betetzean. Indarrean dagoen legedia hartuko da kontuan datuak lagatzeko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta, zuzenak ez badira, ezabatzeko eskubidea duzu. Horretarako, Erregistro Orokorra edo erakundearen egoitza elektronikora jo behar duzu.